

**GR MIKELDI 229 BIDEAREN
MANTENIMENDURAKO KONTRATUA
ESLEITZEKO OINARRIEN PLEGUA**

AURREKARIAK

Urkiola Landa Garapenerako Alkartea Landa Garapenari buruzko, apirilaren 8ko, 10/1998 Euskal Legearen babespean sortutako diru-irabazteko nahirik gabeko erakunde bat da. Elkarte honen kideak, Durangaldeko udal guztiez gain, Durangaldeko beste elkarte batzuk eta bestelako eragileak dira.

Elkarte honen betekizunen artean, besteak beste, Durangaldea zeharkatzen duen GR-229 MIKELDI ibilbidea zaintzea eta mantentzea dago, ibilbide hau 5 etapatan banatzen delarik, guztira 86 kilometroko luzera izanik.

Hauek dira etapak:

1. Durango-Atxondo: 17 km. 5 ordu. Erraza.

Durango (100 m.) - Mañaria (200 m.) - Gatzagieta (600 m.) - Atxarte (300 m.) - Sagasta (400 m.) - Axpe (200m.) - Atxondo (150m.)

Etaparen hasierak Durangoko Tabira auzoan hasten da. Ibaizabal ikastetxearen atzeko aldean dagoen Artabillako bidea hartuta, eta bera da seguruenik ibilbide honen pitxi ederrenetako bat. Tabira da Durangoko uribilduaren izen zaharra eta ibilbidean Tabirako San Pedro elizatik igaroko gara. Eliza hau Bizkaiko eliza zaharrenetakoa da. Bere 15 kilometroko luzeran historiaz beteriko galtzadak, txoko zoragarriak eta izaki mitologikoen antzinako bizitokiak ikusiko ditugu.

Hasierako bost kilometroetan pista atsegin batetik goaz eta ondoren malda txiki batetik behera Mañariaraino jaisten gara. Mañariara heldu orduko Izurtzako Etxano auzoan ibilbide honen beste adar bat hartu geinke Atxartera zuzen joateko (Abadiño). Harrobiak eta Mañariako herria igaro ondoren, Urkiolako mendatea hasten dan lekuan ezker aldeko bidea hartzen dogu eta handik gora arbola artean joanda Gatzagieta baserrira heltzen gara. Gatzagietak zaharberrietako karobi zahar bat du. Untzillatz hatxaren ikuspegi ikaragarri bat agertzen jaku orduan aurrean eta Atxarteraino jeisten dan Erdi Aroko Mendiolako galtzadaren zati batzuk be ikusten ditugu. Handik pasata Larringango haize errota ikusiko dogu.

Atxartera heldutakoan Alluitzeko kareharrizko mendigunea inguratzen dogu eta, aldatz txiki bat igota, Sagasta auzora heltzen gara (Abadiño). Atxarteko haitzartea beti izan da ibarrera sartzeko atea. Sagastako baserriak itzelak dira. Bertatik, hatxak ia eskuz ikutuko ditugu.

Arboladien artean doan beste pista eroso bat hartuta, Atxondoko ibarreko zelai berdeetara heltzen ari gara; han, Axpe auzoa atzean itxita. Atxondoko Ibarra ederra eta bukolikoa da benetan. Santiago auzoan (Arrazolarako bidea hasten dan lekuan) antzinako meategietako trenbidearen lekuan egin dan bidegorria hartzen dogu eta errekaaren ertzez ertz zelai artean joanda, Apatamonasterioraino heltzen gara bide guztian Anbotoko Damaren itzala lagun dogula.

2. Atxondo-Berriz: 8,5 km. 3 ordu. Erraza.

Atxondo – Elorrio - San Agustin Etxebarria (150 m.) – Berriozabaleta (320 m.) – Miotako gana (220 m.) – Leiz (320 m.) – Murgoitio (300 m.) – Berriz (150 m.)

Ibilbideko etapa laburrena izan arren, bere bederatzi kilometrotan toki ikusgarri asko ditu: baserri giroko auzuneak, baseliza ezkutak, galtzada zaharrak, Erdi Aroko nekropoliak...

Trenbide zaharraren bidean egin dan bidetik pare bat kilometro eginda, errepedearen ondoan oinezkoentzat prestaturiko bide batetik beste apur bat ibili ondoren heltzen gara Elorrioko San Agustin Etxebarrira. Han bide harriztatu bat hartzen dogu eta gero errepede txiki batetik Arauneta auzora igoten hasten gara.

San Agustin auzoan galtzada zahar bat aurkituko dogu, alboan bere burdin bidea dabela. Galtzadan gora abiatzen gara irripa txiki bat igota eta Berriozabaleta auzora heltzen gara. Han iturri neoklasiko bitxi bat dago, kuku bat egitea merezi dauana. Berriozabaletan Santa Katalina baserriarekin topo egingo dugu baita ere.

Jaisten gara Elorriotik Berrizera doan errepideraino, zeharkatzen dogu errepidea eta bagoaz Leiz auzorantz. Hango baselizaren ondoan aurkitzen ditugun iturri eta mahaiek gonbitea egiten deuskue geratu eta zerbait jateko. Leizen San Lorenzo baseliza eta ura hartzeko iturria topatuko dogu.

Bide honek adar oso berezia du: Leizetik Elorrioko Zenita eta Argiñeta auzoetara eramango gaituena. Adar honi jarraiki, Elorrioko Argiñeta Nekropolira iritsiko gara. Hilobiok San Adrian baselizaren ondoan dagoz. Bertan Euskal Herriko hilobi eta estela ederrenetakoak mantentzen dira, VII. eta IX. mendeko aztarnak hain zuzen ere. Oso gertu, Zenita auzoan uratsezko iturria dago, antzina Bainu Zaharrak izenez ezagutzen zen bainuetxeen ondoan.

Miotako San Bartolome baselizan nekropoli txikia eta barrukaldean zur polikromatuak ikustekoak dira.

Hortik aurrera bidea irripa txiki bati jarraituz, jaisten da Berrizerantz. Herrira orduko Murgoitio auzoko San Juan baselizan geratu gaitzke begiei gozatu bat emoteko aurreko hatx ederrei begira. Beste galtzada bat harturik minutu gixiren buruan Berrizko kale artean aurkituko gara.

3. Berriz-Garai. 15 km. 4,5. Erraza

Berriz- San Migel Zaldibar (200 m.) - Goierrri (320m.)- Zengotita (400 m.)- Done Kristobal (500 m.) – Andikoa Berriz (300 m.) – Garai (350 m.)

Etapla hau Berrizko herri gunean hasiko dogu, trenbidearen ondoan, aldatzean gora goazela Iturritza kalean eskumatara hartzen eliza alde batera utziaz. Berrizen Markesaren jauregia ikusiko dogu, gaur egun Berrizko Udaletxea den jauregi ederra. Herria inguratzen dogu arbola artean doan bidezidor batetik eta kanposantura heldukeran galtzada hartuko dogu Olabe auzoraino, handik gero Zaldibarko erdi aldera joateko. Olabe auzoak baditu hainbat txoko eder, baserri ikusgarri, erreka eta geldialdia egiteko iturria ere.

Herria zeharkatu eta Garitaonaindia dorretxearen parean (industrialde berriaren ondoan) bidezidor bat hartzen dogu Santa Marina baselizaraino igotzeko. Han, N-634 errepidea zeharkatzen dogu ganeko pasabide batetik eta Mallabiako Zengotita auzorantz abiatuko gara. Hemendik Mallabiko ibar osoa izango dogu gure oinetan eta begi bistan. Apurtxo bat lehenago, Aretxu auzoan, Mallabiarako bidea hartu geinke gura izan ezker. Puntu horretatik hasiko gara igoten San Kristobal Txikiko baselizaraino, eta han bidea beherantz hasten da Berrizko Andikoa auzo ederrera iritsi arte. Andikoatik Durangaldeako hatxen ikuspegia ikaragarri ederra da. Bertan Andikoako Andra Mariren Santutegia ikusiko dogu.

Hortik aurrera errepide estu batetik sigi-saga zeharkatuko dugu Sarria auzoa bere baserri eder, erreka, ur-jausi, errota eta zentral elektrikoaren artean, ibarraren beheko aldean. Sarriatik gorantz egingo dogu bidean. Azkenean, Garaira iritsiko gara uraren murmurioa belarrietan itsatsirik dugula. Garaitik Durangaldeko ikuspegi ia osoa eta ederra da.

4. Garai-Amorebieta_Etxano: 16,5 km. 5 ordu. Erraza.

Garai – Maguna (500 m.) – Laisiar (410 m.) Oromiño (110 m.) – Dueda San Migel (90 m.) – Derandain (160 m.) – Amorebieta-Etxano (120 m.)

Garaiko tontorretik ikusten dan azpiko ibarrean begiei gozatua emon eta gero, Garaiko udaletxe ondoan dagoen eskuma aldetik doan bidea hartu eta laster izango gara

basoko galtzada zahar batean, lehenengo pagoz inguratuta eta gero haretx artean. Gertu, Trumoitteko kastroa kokatuta dago. Kristo aurreko barruti gotortu baten aztarnak geratzen dira bertan. Horma zati bat geratzen da zutunik.

Garai Durangaldeko herririk xarmangarriena da. Bertoko baserriak, jendeak, ohiturak eta ikuspegiak izan ziren inspirazio iturri Zubiaurre margolari anaientzat XX. mendearen hasieran.

Asfaltatutako bide batetik apur bat ibili ondoren aisialdi gune bat isten dogu atzean eta aurrera jarraituko dogu ibilbide honetako toki ikusgarriena batera heldu arte: Maumako atariko galtzadaren aztarrenetara. Maumako ataria Durangaldeko ibarraren eta kostako portuen arteko komunikabide-sareko gune estrategikoa zen. Galtzada garrantzitsu honen zati bat oraindik ikus dezakegu, konponduta dagoelako. Hortik aurrera estarta ixil eta eroso bat hartzen dogu eta pinu artean jaisten gara lurretako Oromiño auzune xarmangarria. Laisiargo landan haretxen azpiko harrizko aulkietan lurretako Kofradien ordezkariak urtean behin bertan esertzen dira jaiak ospatzeko. lurretako Oromiño auzoan urak hain ugariak zirenez, antzina errotak eta burdinolak ugariak ziren bertan. Gaur egun oraindik Erdiko Errota baserriko harriek artoa eihoten dabe.

Atzean isten doguz Oromiño baserri eta errotak. Harlauzazko zubi baten gainetik igaro eta erreka zeharkatuko dogu. Orduan, kostarako errepidearen ostean beste bide bat hartzen dogu Dueda San Migel auzora (Amorebieta-Etxano) joateko. Auzo hori errepide nagusiaren ondoan dago eta bertan jatetxe baten mokadua hartzeko moduan izango dogu. Duedako San Migel baseliza XIII. mendekoa da, baseliza benetan ederra da. Aurrera eginda eta aldatz txiki batetik gora eginez, Derandain auzora iritsiko gara.

Handik aurrera Amorebieta-Etxanora jaisten hasiko gara. Indarrak geurekin baditugu, herriko kale artetara iritsi aurretik Etxanoko bidea hartu eta auzo txiki xarmangarri honi bisita egitea. Etxanoko herri gunean XVI. mendeko Andra Mari eliza ederra ikus dezakegu, gotiko eta berpizkunde estiloak loratzen dutena.

Ibilbide honetan Ibaizabal errekararekin topo egingo dogu. Kantauri itsasora doan ibai honetara isurtzen dira ibarreko erreka guztien urak.

5. Amorebieta-Etxano-Durango: 17 km. 5 ordu. Erraza.

Amorebieta-Etxano- Belatxikieta (600 m.)- Betsuen – Gibela (320 m.) – Santa Luzia (380 m.) – San Andres (250 m.) - Durango (100).

Biztanle gutxi daukien parajeetatik igarotzen da GR-229 Mikeldi puntu ia denetan. Hala ere, etapa honek alkarregaz lotzen ditu Durangaldeko bi herri handienak: Amorebieta-Etxano eta Durango.

Etapa Amorebieta-Etxanoko erdialdean hasten da. Etapa hasi eta laster bidean presa bat aurkituko dogu, ur putzu eta harizti txiki bat. Aldatzari ekin aurretik, geure burua bertan freskatu dezakegu.

Beroketa egiteko lur lauan paseo atsegin bat egin ondoren, Aramotz mendigune karstikorantz igoten dauan pista hartuko dogu eta gero handik urten eta pinu artean doan lasterbidea hartuko dogu. Laugarren kilometroan Ametzuko metal-iturria opari gozoa topatuko dogu. Handik laster, elurtegi eta izotz lantegi zaharra ikusiko ditugu. Jarraitu bertatik beste 4,5 kilometro eta Belatxikieta landetara iritsiko gara. Momentu honetan 661 metro altuko gailurrera iritsiko gara. Ibilbide honetako punturik altuena delarik. Leku atsegina da atseden hartu eta mokadutxo bat hartzeko, izotz-lantegi zaharraren ondoan.

Belatxikieta: lehen artzain bordak zirenak, orain mendiko aterpeak dira. Loiolako San Inazio baseliza, 1949koa, leku ona da geratu eta zerbait jateko.

Beste kilometro batzuk oinez bete ondoren, Betsuen aldera joko dugu. Gero, behera eginez, Gibela puntura iritsiko gara.

Hemen basoko estarta bat hartzen dogu; hasieran laua da baina gero goruntz egiten hasten da Santa Luzian ia Mugarra ukitu arte. Orozketatik aurrera porlanezko pista hartuta Santa Luzia baselizara iritsiko gara. Orozketatik gertu San Andres baselizatik Durangaldeko ikuspegi ederra eta bukolikoa begien aurrean izango dogu. Handik aurrera Durangora jaisten hasten gara eta bidean Neberondo izeneko izotz-lantegi zaharra eta ondoko meategia bisita daikeguz. Dukebaso bidegurutzean komeni da apur bat desbideratzea eta gorantz doan pista hartuta goiko edurtegia eta burdin meategi zaharra bisitatzea merezi du. Gure azken etapa hau Durangon amaituko dugu, historiak eta ondarez beteriko udalerrria bera. Durangoko Alde Zahar ederrak merezi dau bertan egitea osteratxoa.

ESLEIPENAREN OBJEKTUA

Lehiaketa honen bidez pertsona fisiko edo juridiko bat kontratatu nahi da GR-229 MIKELDI ibilbidea zaindu eta mantentzeko.

Honek bidea garbi mantendu behar dela suposatzen du, agertzen diren zaborrak batuz, bidea oztopatzen duten adarrak eta landareak moztuz edo kenduz, eta bidean ager litezkeen oztopoak kenduz. Aldi berean ibilbidearen zehar gida moduan dauden margoztutako markak zein sinaleak berriztatu beharko dira, dagozkien kolore eta pintura mota erabiliz. Seinale bertikalen egoeraren berri emon eta dagozkien lanak Urkiola Landa Garapenerako Alkarteari proposatuz, berak onar ditzan. Pintura eta seinaleen kosteak Urkiola Landa Garapenerako Alkartearen kargu joango dira.

Lan hauek betetzeko, esleipendunak behar diren erramintak, oinarrizko materialak eta tresnak izan beharko ditu, eta lanak egingo dira:

- Lanegun orotan lau ordutan lan egiten objektu hau betetzeko
- Lanen maiztasuna ibilbide bakoitzarekiko Elkarrekin honen Gerentearekin adostuko da, honek zehaztuko dituelarik lehentasunak eta garrantzia duten lanak.

KONTRATUAREN IZAERA

Kontratuak zerbitzuen alokairuaren izaera izango du, urtebete bateko iraupenarekin.

Kontratu hau Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen 318. Artikulua oinarritzat hartuta esleitzen da, Urkiola Landa Garapenerako Alkartea botere esleitzaila den heinean, eta kontratuaren munta 15.000 eurotara (gehi BEZa) ez iristeagatik.

GAINBEGIRATZE ETA KONTROLA

Urkiola Landa Garapenerako Alkarteari lanen ikuskaritza, gainbegiratzea eta jagotzea dagokio.

Honetarako esleipendunak Urkiola Landa Garapenerako Alkartearen Presidentea eta Gerenteari baimenduko die lanen gainbegiratzea, hauen aginduak eta instrukzioak bete beharko dituelarik.

Ohiko gainbegiratze eta kontrola Gerenteari egokituko zaio.

KONTRATATZEKO ERA

Iragarki bat argitaratuko da Urkiola Landa Garapenerako Alkartearen webgunean, eta Elkarrekin honen kideak diren udalei bidaliko die, hauek euren iragarkien tauletan argitara dezaten.

Eskaintzak aurkezteko epea irekita egongo da 2019ko urtarrilaren 18ra arte.

Eskaintzak jasorik, kontratazio mahaia batzartuko da, Zuzendaritza Batzorde osoak osaturik, aurkeztu den eskatutako dokumentazioa aztertzeko eta esleitzaileren kaudimena frogatu den aztertzeko.

Esleitzaileren bati zer bait faltako balitzaio, falta dena aurkezteko hiru eguneko epea emango zaio falta zaiona aurkezteko edo eskaintza konpontzeko. Emandako epean aurkeztuko ez balu, bere eskariari uko egindatzat hartuko zaio.

Onartzen diren eskaintzen artean, kontratazio mahaiak balorazioa egingo du, eta kontratua nori eman behar zaion erabaki beharko du.

Horrez gero, kontratua sinatu beharko da

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA BETEKIZUNAK

Parte hartu nahi duten pertsonak, baltzuek edo elkarteek gutunazal bi aurkeztu beharko dute.

Lehenengoan, A izenarekin, esleitzaileren nortasun juridikoa frogatzen duten agiriak aurkeztuko dira:

a) Pertsona fisikoen kasuan: Nortasun agiriaren kopia, adinez nagusia izan behar dela.

b) Pertsona juridikoen kasuan: eratzeko eskritura edo agiria, estatutuak edo eratzeko akta, bere jarduera arautzen badute, eta dagokion erregistroan behar bezala inskribaturik izatekotan.

c) Pertsona juridikoen kasuan, eskaintza aurkezten duenaren boterea eta bere Nortasun agiria.

d) Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko, azaroaren 8ko, Legearen 71. Artikuluan jasotzen den legez, Administrazio Publikoarekin kontratatzeko debekurik ez izateko zin egindako aldarrikapena.

e) Kaudimen ekonomikoa: Bere merkataritza joera zuzena dela egiaztatzen duen Finantza erakunde batek emandako egiaztagiria.

f) Kaudimen tekniko eta profesionala:

1. Esleitzailerek, pertsona juridikoak izatekotan, euren estatutuetan eta zerga-aldarrikapenean nekazaritza arloko jarduera izan beharko dute.

2. Esleitzailerek, pertsona fisikoak izatekotan, Gizarte Segurantzaren Nekazaritza arloan altan egon beharko dira eta nekazaritza arloko jarduera aldarrikatu beharko dute.

3. Nekazaritza arloko tresna eta erramientien ezagutza praktikoa eta GPSaren erabileraren eta GIS sistemaren ezagutzea. Hau frogatzeko agindutako egindako aldarrikapena aurkeztuko da. Pertsona juridikoa izatekotan, lana egingo duen langileari buruzko aldarrikapena aurkeztu beharko da.

Bigarrenean, B izenarekin, esleitzeko irizpideak frogatzeko agiriak aurkeztuko dira.

ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratua, hurrengo irizpideak aplikaturik, puntu gehien lortzen duen esleitzaileri emango zaio.

1.- Eskainitako prezioa: 70 puntu

Eskaintzarik merkeenari 55 puntu emango zaizkio, eta beste eskaintzei dagozkien puntuak eman beharko zaizkio honako formula hau aplikatuz:

$$\text{Puntuak} = \text{Preziorik merkeena} / \text{Eskainitako prezioa} \times 55$$

2.- Gaztea izatea. 31 urte baino gazteagoa izatekotan, 15 puntu emango litzaizkioke.

3.- Emakumea izatea, edo pertsona juridikoen kasuetan akzioen %51a emakumeena izatea, 15 puntu emango litzaizkioke

3.- Esleitzaila enpresa unipertsonala, mikroenpresa edo autonomia izango balitz 15 puntu emango litzaizkioke.

ZERBITZUA EMAN BEHARREKO EPEA

Kontratuaren iraupena urtebete batekoa da, epea amaiturik iraungi beharko delarik, alderdi batek besteari ezer esan beharko ez dioelarik.

Hala ere, epe hau amaitutakoan, esleipendunak zerbitzua ematen jarraitu beharko du esleipen berri bat eman arte, edo Urkiola Landa Garapen Elkartearen Presidenteak zerbitzua ematen uzteko esango ez balio.

ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA

Eskaintzak 2019ko urtarrilaren 18 arte, arratsaldeko ordu bietan, aurkeztu ahal izango dira, Urkiola Landa Garapen Elkartearen bulegoetan: Berrizko Margarita Maturana Kalea, 7an (48240), edo jmtotorika@urkiola.org helbidera mezua bidaltzen.

LIZITAZIO PREZIOA

Gehienez eskaini ahal izango den prezioa hamabost mila (15.000.- €) eurokoa da.

Prezio honi dagokion BEZa gehitu beharko zaio.

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak hilabetero egingo dira, hilabetea amaiturik eta faktura aurkeztuta, esleitzeko prezioa hamabi ordainketatan banaturik.

KONTRATUAREN GARAPENARI APLIKAGARRIA ZAION LEGERIA

Kontratu honi, eta bere garapen eta betetzeari, Arlo Publikoaren Kontratuei buruzko, azaroaren 8ko, 9/2017 Legea aplikatuko zaio.

ATZERA EGITEKO AUKERA

Urkiola Landa Garapen Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak kontratua inori ez ematea erabaki ahal izango du, eskaintzaileek kaudimena beteko ez balute, edo horri buruzko zalantzak izango balitu.

EPAITZEKO FORUA

Kontratu honi buruzko iskanbilak, auziak edo interpretatzeko zalantzak Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabegazio Gortearen aurreko arbitraiaren bidez konpondu edo erabakiko dira.

Berrizen, 2018ko azaroaren 29an